




Afiliazioa berriro igo da ekainean

Gizarte Segurantzako afiliazioa Urte bakoitzeko ekaina. Milakoak




Iturria: Gizarte Segurantzak.

Gizarte Segurantzaren datuen arabera, **ekainean, Euskadiko afiliazioa %1,5 igo zen aurreko urteko hileko beraren aldean**. Afiliatutako pertsonak 1.044.686 izan ziren, hau da, urtebete lehenago baino 15.541 gehiago, eta serie historiko osoko mailarik altuena da. Hazkundera orekatua izan zen, bai emakumeen afiliazioa bai gizonena urte arteko %1,5 hazi bait zen.

Lan kontratuen kopurua %8,5 hazi zen

Euskadin sinatutako lan kontratuak Urte bakoitzeko ekaina. Milakoak




Iturria: SEPE.

Ekainean kontratazioa %8,5 hazi zen Euskadin aurreko urteko aldi beraren aldean. Guztira, 81.387 kontratu sinatu ziren, eta horietatik %24,3 mugagabeak izan ziren (19.774). Era berean, kontratatutako pertsonen kopurua %9,7 hazi zen urte artean 60.342 pertsona izan arte.



Langabezia erregistratua %0,8 hazi zen ekainean

Langabezia erregistratua
Urte bakoitzeko ekaina. Milakoak




Iturria: Lanbide.

Euskadin erregistratutako langabezia %0,8 igo zen ekainean, 2025eko ekainarekin alderatuta.

Zehazki, iaz baino 821 pertsona gehiagok eman dute izena Lanbideren bulegoetan. Igoera txiki hori gorabehera, bigarren hiruhilekoaren zenbaketa orokorrean erregistratutako langabeziak urte arteko %1,0 egin zuen behera.

Euskadiko IPIa %1,8 handitu zen maiatzean

Industria produkzioaren indizea (IPI)
Urte bakoitzeko maiatza



Iturria: Eustat.

Eustaten datuen arabera, **maiatzean Euskadiko industria produkzioa %1,8 gehitu zen, aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta.**

Hazkunde hori energiak eta ekipamenduko ondasunek bultzatu zuten, eta horien ekoizpena % 10,5 eta % 6,2 hazi zen, hurrenez hurren. Aldiz, kontsumo-ondasunak % 4,1 jaitsi ziren.